

## “Jenderik gehienak ez daki nola funtzionatzen duten GKEek”

Patricia  
de Roda

Lealtad Fundazioko  
zuzendaria

Jendeak oso ontzat jotzen du GKE edo Gobernu Kanpoko Erakundeen lana, baina diru gutxi ematen die, eta, neurri batean, ezjakintasunagatik gertatzen da hori. Duela hamarkada batetik hona, erakunde horiei buruzko informazio eguneratu eta doakoa eskaintzen du Lealtad Fundazioak. Xehetasunez adierazten du nola eta zertarako sortu diren, horien gobernu-organoez nola funtzionatzen duen, lege-betebeharrak betetzen dituen edo ez, nola finantzatzen diren eta nola kontrolatzen dituzten beren funtsak. Fundazioko lehendakariak, Patricia de Rodak, argi utzi nahi du Fundazioa ez zela sortu “ONGak ikuskatzeko, eta, beraz, ez da kontrol-organo bat”, baina onartzen du haren lana lagungarria dela gizarteak konfiantza eduki dezan GKEetan, eta erakunde horiei garde-nak izaten ere laguntzen diela.

**Espainiako Estatuan gardenak al dira GKEak?** Fundazioak lanean daramatzan 10 urteotan, 2.000 GKEk azaldu dute interesa kudeaketa gardentasunez egiteko. Gure azterketen emaitzak % 85etik gora ibiltzen dira urtero. Gardentasun Printzipioak oso ongi betetzen dira.

**Europako gainerako herrialdeekin alderatuta, zer mailatan dabilta?** Lealtad Fundazioa da Espainiako Estatuak ICFO erakundearen duen ordezkaria. ICFO nazioarteko foroa da, 1958an sortua, eta GKEen ebaluatzaileak biltzen ditu. Inguruan ditugun herrialdeetan, GKEei ebaluazioa egiteko edo ziurtagiria emateko joera finkatuagoa dago, eta ziurtagiria duten erakunde gehiago daude; horretan dago alde nagusia.

**Herritarrek ba al dute konfiantzarik erakundeengan?** Herritarrek oso ontzat jotzen dute GKEen lana, beste erakunde askorena baino gehiago balioesten dute. Dohaintzak, ordea, inguruko beste herrialdeetan baino urriagoak dira. Dohaintzak egiteko eta GKEen iraunkor-

tasuna eta independentzia laguntzeko prest dauden herritar gehiago behar dira. Emaileen konfiantza lantzeko bere eskura informazio independentea, osatua eta objektiboa jarri behar da GKEren eta haren kudeaketaren inguruan.

**Emaile batzuek ez dute argi izaten zer gertatuko den haiek emandako diruarekin. Zergatik?** GKEak erakunde konplexuak dira. Proiektu asko lantzen dituzte, borondatez ari diren langileak daukate eta soldatapean ari direnak, eta garapenaren alde ari diren GKEek, gainera, hainbat herrialdeetan lan egiten dute. Jenderik gehienak oraindik ere ez daki nola funtzionatzen duten.

**Emaileek hobeki informatu behar al lukete?** Erantzukizunez jokatu behar dute, eta informatu egin behar dute eta GKEari galdetu dirua eman aurretik eta ondoren. Harreman horrek irekiagoak egiten ditu erakundeak, gardenago eta eraginkorragoak. Konfiantza handitze-ko eta oinarri sozial zabala lortzeko, funtsezkoa da GKEa etengabeko komunikazioan egon dadin gizartearekin. Informazio xehea emateak, eta mezua egiazkoa izateak eta nahasmendurik ez sortzeak erakusten du garden jokatzeko nahia.

**Arduraz egin behar dira dohaintzak. Zer pauso eman behar dira horretarako?** Informazioa bildu behar da dirua eman aurretik, eta ondoren, egiaztatu egin behar da zer-nolako eragina izan duen diru horrek eta GKEak zer-nolako lana egin duen. Horrela jokatuz gero, gizartearekin harreman estuagoa izatera bultzatuko ditugu GKEak, beren jardueren kontu ematera eta eraginkorragoak izatera.

**Dohaintzak Interneten egiteak erraztu egiten du elkarlana edo zalantza gehiago sortzen ditu?** Berriki egin diren ikerketak esaten dutenez, Interneteko erabiltzaileek badute prestutasuna

laguntzeko. Dena den, dirua emateko baino gehiago erabiltzen da –askoz gehiago– sinadurak biltzeko kanpainak egiteko edo norberaren solaskideei jardueren berri emateko. Zergatik? Agian, emaileek nahiago dituztelako ohiko bideak, zenbait GKEk ez dutelako eskaintzen aukera hori eta jendeak ez dituelako Interneten eman nahi bankuko datuak. Gure Fundazioak gomendatzen du, dohaintzak Sarean egiten direnean, segurtasun neurriak izan daitezela erosketak egiterakoan erabiltzen diren berberak.

**Nola bermatu dohaintza bat segurua dela?** Gardentasun eta Jarduera Onen Printzipioek gidatzen dituzte Fundazioak egiten dituen analisiak. GKEak bidaltzen duen dokumentazioa hartzen dugu, soldatapean eta boluntario ari diren langileekin elkarrizketak egin, eta printzipio horiek zenbateraino betetzen dituzten ikusten dugu. Ez gara joaten tokian tokiko proiektuak aztertzerako, oso konplexua eta garestia izango litzatekeelako. Adierazle horiek, ordea, nahiko informazio zehatza ematen digute erakundeen “eginmolde egokiaz”.

**Zertan oinarritzen dira printzipio horiek?** Gomendio batzuk dira, gardentasunari, gobernu onari eta kudeaketari buruzkoak. Horiek finkatzeko, kontuan hartu genuen zer-nolako informazioa galdegiten duten herritarrek, eta beste herrialde batzuetan erabiltzen dituzten ereduak ere aztertu genituen, AEBetan eta Erresuma Batuan, adibidez. Horrez gain, zuzenean galdetu diegu GKEen plataformei eta koordinadorei, erakundeek, Administrazio Publikoari eta Hirugarren Sektoreko adituei. GKEek ere parte hartu zuten adierazle horiek landu eta berraztertze prozesuan.

GEHIAGO JAKITEKO  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)

